

Euskal AEko establezimenduetatik lautik hiruk 3 langile baino gutxiago dauzkate

Establezimendu kopurua %5,5 murriztu zen

Euskal AEko establezimenduak: Euskal AEko establezimenduetako enplegu-tamainaren arabera egiturak lehengoan iraun zuen 2009an, Eustaten datuen arabera. 2.338 establezimenduk, %1,2k, 50 enplegu baino gehiago zituzten, enpleguaren %37,2. 141.607 establezimendu, guztizkoaren ia hiru laurden, ez dira 3 lanpostura heltzen eta enplegu guztiaren %19,1 bakarrik hartzen dute.

Egoitza Euskal AEn duten enpresek, lehen sektorekoek izan ezik, 191.057 establezimendutan (lantegiak, dendak, bulegoak ...) gauzatu dute jarduera, aurreko urtean baino %5,5 gutxiagotan.

Establezimendu kopurua sektore guztietan murriztu da, Administrazio publiko, hezkuntza eta sanitatean izan ezik, non %0,4 hazi den. Nabarmenezkoak dira Eraikuntzaren (%11,9), Higiezinaren jardueren (%6,9) eta Informazio eta komunikazioaren (%6,6) jaitsierak, denak batez bestekoaren gainetik.

Establezimendu kopurua, jarduera-adar eta urte arteko aldakuntza-portzentajearen arabera. 2010-1-1

	Euskal AE		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Guztira	191.057	-5,5	25.277	-5,7	99.086	-5,3	66.694	-5,7
Industria eta energia	14.404	-3,2	2.345	-2,7	6.447	-3,6	5.612	-3,0
Eraikuntza	29.656	-11,9	4.097	-13,2	14.668	-10,9	10.891	-12,8
Merkataritza, garraioa eta hostalaritza	74.616	-5,4	9.741	-4,2	39.771	-5,7	25.104	-5,2
Informazioa eta komunikazioak	3.304	-6,6	422	-7,0	1.752	-6,3	1.130	-7,0
Finantza jarduerak eta aseguru-entzakoak	5.137	-1,9	763	-2,1	2.719	-1,9	1.655	-1,9
Onibar-jarduerak	5.708	-6,9	250	-7,4	3.348	-6,6	2.110	-7,4
Jarduera profesionalak	29.392	-3,7	3.898	-5,7	15.727	-3,1	9.767	-3,7
Herri administrazioa, hezkuntza eta hezkuntza	15.272	0,4	2.029	0,1	8.118	-0,1	5.125	1,3
Beste zerbitzu-jarduerak batzuk	13.568	-3,4	1.732	-5,3	6.536	-1,7	5.300	-4,9

Iturria: Eustat. Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda

Hiru lurraldeetan antzekoak dira pautak, sektore guztietan dauden establezimendugalerak. Salbuespenak Administrazio publiko, hezkuntza eta sanitatea dira, %+1,3 Gipuzkoan eta %+0,1 Araban. Galerarik gehien Eraikuntzan: %13,2 Araban, %10,9 Bizkaian eta %12,8 Gipuzkoan. Higiezinaren jardueren sektorearen jaitsiera ere nabarmena da: %7,4 Araban eta Gipuzkoan eta %6,6 Bizkaian. Antzera, Informazio eta komunikazioetan: %7,0ko jaitsiera Araban eta Gipuzkoan eta %6koa Bizkaian.

Establezimenduen jarduera-adarraren arabera batez besteko tamainaz, enplegu-kontzentrazio handiena, bai Euskal AEn, bai lurraldeetan, Industria eta energia da. Euskal AEn establezimenduko batez besteko tamaina 13,9 enplegu da. Araban 18,1; Gipuzkoan 13,9 eta Bizkaian 12,4. Administrazio publiko, hezkuntza eta sanitategiaren establezimenduen batez besteko tamaina: 14,4 Araban, 10,7 Gipuzkoan eta 10,6 Bizkaian.

ENPRESAK

Euskal AEn ari diren enpresa-kopurua, lehen sektorean izan ezik, %6,0 murriztu da 2009an; guztira 171.345 enpresa aktibo, 2008an baino 10.939 gutxiago. Haien arteko %97,6k egoitza Euskal AEn du eta 4.075ek estatuko gainerakoan.

Euskal AEko enpresak: Enpresen batez besteko tamaina zertxobait hazi da: 5,3 okupatu enpresako, eta 4,7 establezimenduko. Nortasun juridikoaren arabera azterketan alde nabarmenak daude. Titularra Pertsona Fisikoa denean, 1,4 enplegu, bai enpresako, bai establezimenduko; gainerako forma juridikoetarako batez besteko horiek 10,4 eta 8,5 okupatu dira, enpresako eta establezimenduko.

ENPRESA-DEMOGRAFIA

Lanean hasi eta lanari utzi zioten establezimenduen arteko saldo garbia -11.036 da; Errotaziorik handiena Pertsona Fisikoaren formula juridikoarekin sortutako establezimenduetan gertatzen da: alden %67,0 eta baje %71,4. Kolektibo honen guztizko saldoa: 8.584 establezimendu gutxiago; izan ere, utzi diotenak gehiago dira berriak baino.

Establezimenduen demografia. Euskal AE

Jardueraren arabera	Altak	Irteerak	Nortasun juridikoaren arabera	Altak	Irteerak
Total	14.346	25.382	Guztira	14.346	25.382
Industria eta energia	1.091	1.541	Pertsona fisikoa	9.618	18.127
Eraikuntza	2.859	6.902	Akziokako elkarteak	341	938
Merkataritza, garraioa eta hostalaritza	4.056	8.357	Elkarte mugatua	3.028	4.240
Informazioa eta komunikazioak	426	568	Bestelako elkarteak	981	1.942
Finantza jarduerak eta aseguru-entitateak	365	458	Bestelako forma juridikoak	378	135
Onibar-jarduerak	363	789			
Jardura profesionalak	2.795	3.954			
Herri administrazioa, hezkuntza eta hezkuntza	1.411	1.390			
Beste zerbitzu-jardura batzuk	980	1.423			

Iturria: Eustat. Jardura Ekonomikoen Gidazerrrenda

Bestelako forma juridikoetan bakarrik dago guztirako saldo positiboa, 255 establezimendu; zehazki, kooperatiba, organismo autonomo eta asimilatuak eta Administrazioaren beste organoak. Sozietate anonimoak dira establezimendurik gutxien (788) galtzen dituztenak; sozietate mugatuak (919) antzera ibili dira.

Demografia jardueraren arabera aztertzean, Merkataritza, garraioa eta ostalaritza (alten %28,3 eta bajen %32,9), Eraikuntza (alta guztien %19,9 eta baja guztien %27,2) eta Jarduera profesionalak (alta guztien %19,5 eta baja guztien %15,6) nabarmentzen dira.

Establezimenduen tamainaren arabera, geruzarik dinamikoena 2 enplegu edo gutxiagokoa da, ohi bezala. Berak bakarrik alta guztien %88,7 eta baja guztien %89,9 hartu ditu.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Federico Gutiérrez

Tel.: +34-945-01 75 43 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal enpresen egitura eta demografiari buruzko Prentsa-oharrak